

ESTILO ARAUAK – KRIMINOLOGIAKO GRALa

Gida hau ez da nahitaez bete beharrekoa: ikasleei jarraibide batzuekin laguntzeko helburua besterik ez du. Ezinbestean bete beharrekoa da, ordea, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean gradu amaierako lanak egin eta defendatzeari buruzko Arautegia (Fakultateko Batzarrak 2024ko uztailaren 23ko saioan onartua).

1. Kriminologiako GRALak honako egitura hau izan behar du: zati teoriko bat eta zati enpiriko bat; edo zati teoriko bat eta aztergaiaren egoeraren gainbegirada bat. Azken mota horretan gaiari buruz aurretik egindako azterlanak aztertu beharko dira, eta zati hori izango da GRALari ikuspegi enpirikoa (kuantitatiboa edo kualitatiboa) emango diona.

2. Bestalde, hiru modalitate daude aukeran GRALa egiteko: ikerketa proiektua, txosten kriminologikoa edo ikasleak egindako kanpoko praktikei lotutako lana.

1. modalitatea: ikerketa proiektua:

- Ikerketa proiektuaren deskribapena. Proiektua kokatzen duten aurrekari bibliografikoak, aztergaiaren gaur egoera, helburu orokorrak eta espezifikokoak eta lan hipotesia.
- Lanaren interes zientifiko eta soziala.
- Zati enpirikoan erabilitako metodologia eta haren mugak: Emaitzak lortzeko erabilitako teknika eta tresnen azalpen xehea, eta emaitzak aztertzeko erabilitako prozedurarena.
- Lan planaren kronograma.
- Lortutako emaitzak. Ikus-entzunezkoak edo aplikazio informatikoak ere izan daitezke.
- Emaitzen analisisa.
- Ondorioak.
- Bibliografia.
- Eranskinak (aukerakoa).
- Txosten trinkoa, gehienez hamar orrikoa. Bertan ikasleak lan osoaren laburpena jasoko du, ondorioak eta inplikazio praktikoak nabarmendu beharko ditu, kasuan kasuko arlorako hobekuntzak proposatu, eta txosten hori irakurtzeko interesa izan lezaketan eragile sozial publiko eta pribatuak aipatu.

2. modalitatea: txosten kriminologikoa

- Esparru teorikoa: proiektua kokatzen duten aurrekari bibliografikoak, aztergaiaren gaur egungo egoera, helburu orokorrak eta espezifikoak.
- Kasu azterketa: iturriak eta aztertutako egitateak.
- Txosten kriminologikoa, adituen txostenetarako ISO arauari jarraituz egina. Beraz, arau horien arabera, honako epigrafe hauek izan beharko ditu: helburua, proposatutako galderak, aurrekariak, abiapuntuko kontsiderazioak, erreferentziako dokumentuak, terminologia eta laburdurak, analisia eta ondorioak, eta bibliografia eta eranskinak.
- Txosten trinkoa, gehienez hamar orrikoa. Bertan ikasleak lan osoaren laburpena jasoko du, ondorioak eta inplikazio praktikoak nabarmendu beharko ditu, kasuan kasuko arlorako hobekuntzak proposatu, eta txosten hori irakurtzeko interesa izan lezaketen eragile sozial publiko eta pribatuak aipatu.

3. modalitatea: ikasleak egindako kanpoko praktikei lotutako lana

- Sarrera. Kanpoko praktikan egindako jarduerak testuinguruan jartzeko behar den informazioa, aztergaiaren egoerari buruzko informazio bibliografikoa eta ikasleak praktikak egin dituen erakundearen gaineko informazioa barne.
- Jardueren azalpena. Kanpoko praktikan egindako jardueren aurkezpena, landa lanarena barne, ikasleak halakorik egin badu.
- Teknikak eta metodologia. Kanpoko praktikan erabilitako metodologia eta tekniken deskribapena.
- Ondorioak eta iritzi kritikoa. Azaldutako jardueren eta metodologiaren inguruko iritzi kritiko ondo garatua.
- Proposamena. Hobekuntzak edo esku hartze programa bat proposatu beharko dira kasuan kasuko arlorako.
- Bibliografia.
- Eranskinak (aukerakoa).
- Txosten trinkoa, gehienez hamar orrikoa. Bertan ikasleak lan osoaren laburpena jasoko du, ondorioak eta inplikazio praktikoak nabarmendu beharko ditu, kasuan kasuko arlorako hobekuntzak proposatu, eta txosten hori irakurtzeko interesa izan lezaketen eragile sozial publiko eta pribatuak aipatu.

3. Lanak gutxienez 75 orri izango ditu, eranskinik gabe, formatu honetan:

- Letra tipoa eta tamaina: EHUko tipografia ofiziala, 12 pt
- Lerroartea: 1,5
- Goiko, beheko eta eskuineko marjinak: 2,5 cm; ezkerrekoa: 3,5 cm.
- Orriaren tamaina: DIN-A4

4. Ohiko estilo liburu jakin bateko arauak bete beharko ditu (MLA, Harvard, APA, ISO, etab.) aurkezpenari, aipuei, bibliografiari, kapituluaren zenbakitze eta antolaketari, ondorioen aurkezpenari eta abarri dagokienez.

5. Azalean informazio hau agertu beharko da:

- Unibertsitateko logo ofiziala
- Graduaren izena
- Ikasturtea
- Lanaren izenburu osoa
- Egilea: [eta bi puntuaren ostean, ikaslearen izen-abizenak]
- Zuzendaria: [eta bi puntuaren ostean, tutorearen izen-abizenak]

6. Goian aipatutako arautegiko 4. artikuluari jarraituz, ikasleak GRALean:

- Saiatuko dira hizkuntza inklusiboa erabiltzen, eta genero ikuspegia kontuan hartzen gizakiei buruzko lanetan.
- Egindako lanari buruzko hausnarketa bat idatziko dute, 200 hitz ingurukoa, printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) argitan. Lanaren atal espezifiko bat izango da.

7. Ikaslea tentu handiz ibili beharko da, inoren testuak kopiatu gabe parafrasia erabiliz. Plagioa lanak deskalifikatzeko arrazoia izango da, eta hitzez hitzezko aipamenetatik eta dokumentazio lan zorrotzetik bereizi behar da.

8. GRALean gizakiei, beren datuei, laginei eta abarrei buruzko ikerketaren bat eginez gero, horretarako ezarrita dauden jarraibideak bete beharko dira. UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen (IEEB) web orrian daude ikusgai. Ikasleak aurkeztu beharko du jarraibide horiek bete izana frogatzen duen dokumentazio gehigarria. Ikasleak egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (adibidez, praktiketarik) eratorritako informazioa erabiliz gero, lanean argi eta garbi jarri beharko da zein izan den datuen iturria eta zelan anonimizatu.